

ED GASTEIZ

Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria

3. Zka.

Gasteiz, 1993 Otsaila

JUANMA BAJO ULLOA,
zinemaz mintzo

BADATOSZ IHAUTERIAK!

Tania & Mauro
betaurreko berriak
MULTIOPTICASen azkena zure
begiak modaz jazteko.
Beren diseinu erakargarri eta
kalitatezkoak.
Eta prezioa, harrigarria:
2.550 pta.

Eta beti MENDIA OPTICAren
garantiaekin.
Zatoz eta zerorrek frogaz ezazu.

betaurrekoak
Tania & Mauro

**ALAITU
EZAZU
BEGIRADA
2.550 pta.**



MENDIA OPTIKA

DESDE 1856 AZ GERO

MULTIOPTICAS

Beti Zuri Begira

Andre Maria Plaza - Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

Zergatik ez

Macintosh?



Macintosh Classic

4Mbko RAM

40 Mbko Disko gogorra

Floppy 1,44 (Mac/PC)

Stylewriter

inprimagailua

105.000 Pzta.

Macintosh LC

4Mbko RAM

40 Mbko Disko gogorra

14" Kolorezko

Monitorea

Floppy 1,44 (Mac/PC)

154.000 Pzta.

BEZ sartu gabe



Apple Computer
Banatzaile Baimendua

A stylized signature logo for BilboMICRO, featuring a large, flowing 'B' and 'M' that merge together.

BILBOMICRO

Bilbo

Colón de Larreátegui, 25 Av Basagoiti, 52

Tfnoa: 4 23 02 13

Algorta

Tfnoa: 4 60 95 91

Donostia

Arrasate, 6
Tfnoa: 42 32 27

Gasteiz

San Francisco
Tfnoa: 28 41 3

GEU

Gasteiz

Gasteizko Euskaldunon
Aldizkaria

1691 Postakutxa GASTEIZ

Zuzendaria

Joseba Gorostiza

Erredakzio-batzordea

Iñigo Barruso

Xabier Etxaniz

Mikel Garmendia

Txema Millan

Patxi Salaberri

Kazetariak

Leire Lopez de Aberasturi

Inaxio Lopez de Arana

Ismael Diaz de Mendibil

Publizitatea

Martin Rezola

Maketazioa

Blanka Agiriano

Alex Badillo

Argazkilariak

Lukas Etxeberria

Joseba Olalde

Joseba Unzalu

Kolaboratzaileak

Agurne Aizpirtate

Asier Garro

Txipi Ormaetxea

EUSKARA -GASTEIZ.

Geroa Elkarrekin Lantzen

taldearen babesarekin

5.000 Aleko Tirada

Lege-Gordailua

VI-582/92

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Zubillaga, Onati)

GEU GASTEIZek ez du bere gain

hartzten bertan adierazitakoen

erantzunkizunak

Kutsadura akustikoa

Gizonak premiagabe hedatzen duen kutsadura mota bat, eta benetan zitala gainera, akustikoa da. Badirudi progresioak ekarritako nahitanahiezko ondorioa dela zarata, eta nola edo hala onartu beharko dugula, makinak eta leherpen motoreak alde batera uzten ez ditugun bitartean.

Inguru guztia plastiko-zatiz eta zaborrez zikindu duen bezala, lurraren txoko baretsuenetara eraman du premiagabeko zalaparta gizatar eroak. Gaur egun ez da erreza oihanaren zurrumurru ixila, nahiz errekatxoaren abesti gozatsua entzutea: bazter eskuragaitz horietaraino iritsi baitira mendi-motozikleta uzkertiak eta transistore-tresna gogaikarriak.

Hiria eta hiritarra ere ez dira libratzen gizatiar zaratazalearen erasotik makina eta kotxeen iskabilaren gain, gizasemeak gaur egun "musica ambiental" deritzan "giro musika" asmatu du. Pedagogo modernoek aipatzen duten musikaren "efekto somatikoa" aintzakotzat hartuz, gure gizartearen zuzendariak bezero sineskorrak erakartzeko eta bere produktoak errezago saltzeko, "giro musika" erabiltzea erabaki dute. Hau dela ta, zure iritzia eskatu gabe, Julio Iglesias-en abots koipatsua jasan beharko duzu supermerkatuan edo bizartegian, geltokian nahiz dentistaren egongelan.

Bezeroak musika kakaztuz gogaitzeko grina, berez elkarriketarako eskainiak egon behar luketen tokietara hedatzen da. Zergatik jatetxe eta sagardotegietan, bezeroei iritzia eskatu gabe, "giro musika" ipintzen duten, ez dugu ulertzen. Euskaldunak betidanik maite izan du mahai inguruaz baliatzea, bere adiskideekin iritziak aztertzeko: jantokietako ozen-ekipoen soinusartzeak ez dio inola ere zeregin hortan laguntzen.

Ohitura kaltegarri bat sartu zaigularik, azken mugaraino heltzen da arazoa taberna eta kafetegietan ahalik eta ozenkien jartzen dizkigute aspaldian katalogotik kanpo gelditu diren "rock" grabaketa ezin zaharragoak. Jendea taldeka joan ohi da leku horietara; baina ohizko jardunean solastu nahi baldin badute, "baxu ritmikoaren" eraso gaingiduz, ez dute beste biderik oihuka eta deadarka elkarri mintzatzea baino.

Espero dugu gizaseme modernoaren gogo alferra noizbait zentzunean sartuko dela, ikusmen, usaimen eta entzumenaren torturaketa inola ere modernismo eta aurrerapenaren ezaugarria ez dela ulertzen duelarik.

Sabin Salaberri.

Aldizkari hau dohain, debalde, banatzen da. Jaso nahi baduzu bete ohar hau eta bidali 1691 posta kutxara

GEU GASTEIZ ALDIZKARIA ETXEAN DOHAIN JASO NAHI DUT

IZENA:

DEITURAK:

KALEA: Zenb.: Pisua:

Kode postala:

HERRIA:



Postariak ekarriak

Aldakuntza eta obrak

Badirudi gure hiria beti obretan dagoela. Kaleetan zehar ibili ibilian beti aurkitzen da baten bat. Orain dela gutxi, obra batzuk egin ziren Prado kalean, eta orain San Antonio kalea hankaz gora dago obrak direla eta. Siervas de Jesus kaleak hor jarraitzen du makineen artean. Adibideak era askotakoak izan daitezke.

Zergaitik hainbeste obra?

Hiria txukundu eta nolabait eraldatu behar da, hor ez dago dudarik, baina zerbait asmatu egin beharko litzateke mota honetako obrak egin ahal izateko. Horietatik bat, auzoz auzo plangintza burutzea izango litzateke eta bertako bizilagunei galdetu zein hilabetean edo zein egunetan egin daitezke obrak. Bestetik, udako partea izan daiteke garairik egokiena espaloietako obrak burutu ahal izateko.

Edozein modutara ere, irudimena landu egin behar da obrek sortzen dituzten eragozpenak behar den neurrian gutxitzeko.

Juan Carlos Egiluz

OHARRA

"Postariak ekarriak" atal honetan, zuen berri jakin nahi dugu. Idatziguzu nahi duzuna kontatuz. Espazioa izango da jarriko dizugun muga bakarra. Eskutitzak gehien jota 20 lerrokoak izan behar dira eta bertan zure izena, abizenak eta nahi izanez gero zure lanbidea jar itzazu.

HEMEROTEKA

«Aita zenarekin batera lurperatu nahi izan zuten bere lana.»

Ascen Donnay

(Alfredo Donnay musikagilearen alaba)

«Araban, Athletic bezalako futbol taldea bagenu, gure hiriak askoz hobeto funtzionatuko luke.»

Antonio Rivera

(Historia kontenporaneoko irakaslea EHUn, "La ciudad Levitica" liburuaren idazlea.)

«Arabarrek ez dute bere lurra ezagutzen»

Ramiro Ortiz de Guinea

(Asmakizun eta jeroglifiko egilea)

«Gezurra, batzutan maltzurra eta negatiboa da, beste batzutan, ordea, jolasa eta entretenigarri»

Julio Medem

(Zinema zuzendaria)

«Jo eta su entrenatu behar da igerian txapeldun izatera heltzeko»

Mikel Cano Garcia

(Down sindromea duen 16 urteko gasteiztarra)

«Fantasiaz gozatzek pertsonalitatearekin du zerikusi handiago, adinarekin baino»

Pilar Garcia Goiburu

(Taun-Taun txontxongilo-taldearen partaidea)



HEGOALDE
euskaltegia.

Florida 58, behea. Tfnoa. 284196 - 01005 GASTEIZ



zalu

FOTOKOPIAK

Berehalaxe!!

Prado 20

Tfnoa: 945-288248 Faxa: 945-253291

Bus-Zerbitzuak




Zeure aukera! Lemapean kanpaina berri bati ekin dio TUVISAK, Udal Elkarte Anonimoak. Honen bitartez, Gasteiztarrak bus-zerbitzuak erabiltzera bultzatu nahi da.


Gaurregun, guztira, 46 autobus ditu empresa honek, horietatik 24 dira auzoetako zerbitzuak burutzen dituztenak. Gainontzeko guztiak, hau da, 22, zerbitzu bereziak eta nola edo halako premiak betetzeko daude.

Bataz beste, 30.000 bidaia egiten dute egun bakoitzeko, egun euritsuetan %12a igotzen delarik. Datuen arabera, 15.000 biztanlek erabiltzen du egunero autobus zerbitzua.

Urte honi begira, ezarritako prezio berriak honako hauek dira: ohizko txartela 70 ptza, bonobusa (10 bidaia) 340 ptza. Ikasleentzako prezio bereziak eta hirugarren adinakoentzat, jubilatuentzat eta langabezia daudenentzat dohainik.



ELKAR



FAGOR

**SUKALDEKO
HALTZARIAK**

Manuel Iradier, 37
 Tfnoa: 25 45 88
 Faxe: 27 81 93
 01005 - GASTEIZ




ALBENIZ
MOBILIARIO

Cercas Bajas, 8
 Telefonoa eta Faxe 28 74 82
 01008 GASTEIZ

Kalea Mintzo

I N K E S T A

Ezindu fisikoentzat plataforma baxuko autobusak, ibilbide eta maiztasunean hobekuntzak, markesina berriak, ikasleentzako aukera bereziak, linea berriren bat eta garraio publikoaren gida bat dira Gasteizko

Udalak azkenaldi honetan garraio publikoa sustatzeko egin dituen berrikuntzak. Baina, gasteiztarrek autobusa gutxi hartzen dutela gauza jakina da. Beharbada, hemen distantziak txikiak izanik, joanetorriak oinez egitea aproposagoa delako. Horrela bada, oinez ibiltzea bultzatzea ez legoke gaizki. Gasteiz zenbait garaitan kotxez gainezka egoten dela ere nabaria da. Kontuak kontu, kontraesan hauek argitu nahirik edo, ikus dezagun zer dioen jendeak.

1-Garraio publikoa erabiltzen al duzu eta jabetu al zara egin dituzten berrikuntzetaz?

2-Zer-nolako iritzia duzu Gasteizko garraio publikoaz?



IRATXE ARTETXE. IKASLEA

1-Bai. Badakit autobus berriak jarri dituztela: elbarrituentzat prestatuak, eserleku gehiagorekin e.a.

2-Uste dut ona dela. Dauden lineak egokiak iruditzen zaizkit eta maiztasuna ere bai, nahiz eta batzutan lepo eginda joan. Hutsuneak ere badaude, esaterako, kartelak ez dira batera argiak. Hasieran ez nintzen ezertaz jabetzen, ez nekien zein autobus hartu, adibidez.

JUAN LUIS GARCIA.ADMINISTRARIA

1-Bai. Aldaketaz, berriz, ez naiz konturatu.

2-Ondo dago, beste hiriekin alderatuz gero behintzat. Autobusak ez dira gehiegi atzeratzen, zerbitzua ona da. Horrez gain, uste dut jendeak erabiltzen duela garraio publikoa, Albaceten baino gehiago, behinik behin.



JUANA CID. JUBILATUA

1-Bai, berogailu onak dauzkate.

2-Ondo dago. Bero-bero eta gustora joaten da. Abantailiaz baliatzen den jubilatu asko dago baita. Eskumuturreko bikainak soinean, baina, ordaindu gabe doaz. Hori ez dago ondo, pentsio ona daukan jubilatu ugari paseatzen da autobusez. Nik behar dudanean hartzen dut autobusa, oinez ibiltzea gustatzen baitzait.

Bestalde, gehienetan berandu ibiltzen dira, Zaramagakoa batez ere, beti azkena. Oraintxe ere hemen izan behar zuen, baina, ez da etorri.



GERO GEROKOAK.

ORAIN

**INFORMAZIOA ETA
MATRIKULA:**

EUSKARAZ

BIZI!



Peru kalea, 8 Tfnoa: 22 60 50 • Jose Mardones kalea, 8 Tfnoa: 26 35 40


FLORENTINO CLEMENTE. EDADETUEN LAGUNTZAILEA

1-Oso gutxitan. Aldaketaz ez dakit ezer.
 2-Nahiko ondo dago. Autobusak berriak dira, prezioak, ordea, nahiko garestiak. Ni oinez ibiltzen naiz Gasteiz txikia delako eta autobusaren zain nagoen denbora horretan iritsi naitekeelako lekuetara. Hemen, autobusa hartzekotan debalde izan beharko luke.

ELISA FERNANDEZ DE LASA. IRAKASLEA

1-Gutxitan. Linea berri batzuk eta autobusak sarriago jarri dituztela entzun dut.
 2-Nahiko ondo dago orokorrean. Hala ere, hobetu daiteke. Batzutan hiriaren punta batetik bestera ezin zara joan eta beste zenbaitetan autobusak ordu erdiero bakarrik daudenez, ordubete behar izaten da nahi duzun lekura iristeko. Bestalde, Gasteizek zabalera handia ez duenez, oinez ere zeharkatu dezakegu.


FEDERICO BONILLA. INGLES IRAKASLEA

1-Gutxitan. Badakit propaganda bidali dutela etxera, baina, ez diot jaramonik egin.
 2-Ondo dagoela uste dut. Autobus ugari, itxurosoak eta berriak ikusten ditut. Halere, jendeak autoa hartzen du, patxadazaleak garelako. Nik autorik ez neukanean oinez joaten nintzen bazter guztietara, orain badaukadanez, kotxerik gabe inora ez. Garraio publikoaren erabilera areagotzeko kanpainak egin beharko lirateke, eta asteen behin autoa aparkaturik utzi, Italian bezela. Behartuz gero soilik zuzentzen baikara

ANGEL CAMPO. JUBILATUA.

1-Bai, egunero. Berrikuntzetaz zerbait entzun dut.
 2-Ondo dago. Jubilatuek erabil dezakete lasai asko eta merkeak dira gainera. Kexaren bat ere badut: ematen du gidariekin agureekin bukatzeko komisioa daukatela, txantxetan diot eh! Izan ere, behin autobusean nihoala balaztada batez lurrera erori eta kolpearen ondorioz begi bat galdu nuen. Gidariei erreparo gehiago eduki dezaten eskatuko nieke


DORITA FRIAS ETXEKOANDREA

1-Ez bizikletaz ibiltzen naizelako. Berrikuntzetaz bai, ohartu naiz.
 2-Oso gutxitan erabiltzen dudan arren, lehen baino hobeto dagoela deritzot. Informazioa, ordea, desegokia dela iruditzen zait. Esatebaterako, ibilbideen kartelak ez ditut ulertzen. Eskerrak etxean gida zahar bat dudan

IBUSGARBI
t i n t a t e g i a
**Alfonbrak, mantak eta edredoak, narruzko arropak,
 berokiak eta lumazko arropetan espezializatuak**

 DOMINGO BELTRAN, 26 • JUDIZMENDI, 20
 TFNOA 14 19 45 • 27 05 83 • GASTEIZ

Auzoz-auzo, hemen:

- Ariznabarra: Ociogaztelua, 21 • Astulezgaiztelua, 3
- Sansomendi: Valentin Foronda, 3
- Zaramaga: Zuta, 14 • Nafarrako Erregeak, 56
- Abendaño: Abendaño, 1-37
- Adurza: Nieves Cano, 6 • Pio XII, 5
- Adriano VII, 1
- Pedro Orbea, 2

Bazenekien...?

... "La Florida" parkearen eraiketa 1820an hasi zela "El Espolón" izeneko beste baten ondoan?

... 1855ean eman zitzaizkiola gaur egun erakusten dituen zabaltasuna eta egituraketa?



... Bertako kioskoaren inguruan agertzen diren lau estatuak Liuva I, Sigeriko, Ataulfo eta Theudis errege visigotuak irudikatzen dituztela?

... Estatuok Madrileko Erret Jauregitik kendu ondoren, 1821ean ekarri zirela Gasteiza, garraio-lanetan 11.780 erreal gastatuz?

... 1956an, Manuel Iradier ikusketariaren jaiotzaren lehen mendeurrena ospatzeko Lorenzo Askasibarrek burututako estatua bat jarri zela?

... Parkeko monumenturik handiena Eduardo Dato Iradier politika-gizonaren omenez Mariano Benlliurek landutakoa dela eta gizarte-babesaren alegoria irudikatzen duela?

... Monumentu horren inaugurazioa 1925eko martxoaren 8an (Dato politikariaren hilketaren laugarren urtemugan) izan zela eta omenaldian Alfontso XIII erregea eta hegoaldeko euskal lurraldeetako lau Foru Aldundietako ordezkariak eta udalgizonak egon zirela?

Juanma Bajo-Ulloa

Zinea asmatzen duen zuzendaria



Bigarren luzemetraia errodutzen ari da egun hauetan Gasteizen zinea inoiz ikasi ez duen zuzendari hau. Zinea lan eginez ikasten dela oso argi dauka, baita egin nahi dituen gauzak ere. Berak egin nahi duena egiten duela ziurtatzeko dena kontrolpean izatea gustatzen zaiola aitortzen du. Eta eskutartean duen filmea oso interesgarria dela adierazi digu gasteiztar zuzendariak.

Nola sartu zinen zinearen munduan?

Ni ez naiz inoiz zine egiten irakasten duten eskola batetara joan. Baina zinea egin nahi nuela erabaki nuen. Lortu nahi nuen kamara garestiegia zenez super-8 bat erosi eta lehenengo laburmetraia egin nuen, gero beste bat eta beste bat. Egin nahi nituen laburmetraia guztiak bukatu eta gero kamara handiago bat alokatu eta inork eman nahi ez zidan dirua lortu nuen lehenengo luzemetraia egiteko.

Eskolan ez ikasteak arazoak ekarri dizkizu?

Laburmetraiak egiten hasi eta gero eskola batetara joan nintzen baina ez zuten zinea irakasten, han kamara barruan zer dagoen, zergatik grabatzen duen eta horrelako gauzak ikasi nituen.

Eskoletako gauzarik onena zinea egin nahi duten beste ero



eran egiten ditut. Nolabait zinea asmatu egiten dut.

Nolakoa da orain eskutartean duzun filmea?

Gidoia gogorra dela uste dut, pelikulan esaten den guztia zuzenean esaten delako. Hala ere, ez du ikustea agintzen inoren alde edo kontra ager dadin. Filme honetako pertsonaiak zerbaiten bila dabiltza etengabe, maitasunaren bila. Filmeak bakoitzaren bizitza nolakoa den azaltzen du ikusleak hauek egiten dituzten gauzak ulertu ahal izateko. Pelikula interesgarria dela uste dut, ez du aspertzeko denborarik ematen akzioa oso azkar doalako.

■ «**Planoen izenak jakin gabe ere ederto moldatu naiz zinean**» ●

■ «**Gertatzen den guztia kontrolatzea atsegin dut. Horrela nahi dudana egiten dut**» ●

batzuk aurkitzen dituzula da. Dena den teoriak ez du ezertarako balio. Pelikula bat errodutzen hasten naizenean inoiz ez ditut objetiboen izenak gogoratzen eta planoen izenak jakin gabe ere ederto moldatu naiz zinean. Gauza hoiek

gainera ordu betean ikasten dira.

Pelikula asko egin duten zuzendariak askotan ez dute nere lan egiteko era ulertzen. Baina gauzak nola egiten diren ikasi ez dudanez neretzat egokiena den

Maiatzean bukatuko dugu, bitartean Gasteiz, Agurain eta Mirandan ibiliko gara lan egiten.

Zure filmeen zuzendaria izateaz gain gidoilaria eta produktorea ere bazara.

Eduardok, nire anaia, eta nik idatzi dugu eta produkzioa familiak egiten du. Filme batean istoria bat azaldu nahi dudanean ez dut inoren inposaketarik nahi. Horregatik gertatzen den guztia

Ardatz itzulpen eta euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK

zurbeltz

MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20

■ Teknikoak dira zinean dirua irabazten duten bakarrak. ●

jakin eta kontrolatzea atsegin dut. Horrela nahi dudana egiten dut.

Zer suposatu du New York-eko kritikoeek Tximeleta Hegoak filmeari eman berri dioten Opera Prima sariak?

New Yorkeko kritikoeek emandako saria denez, erabaki zuzena hartu dute eta filmea zoragarria da. New Yorkeko kritikoeek esan dutelako. Donostiako zinemaldiko epaileek emandako saria ez zen horren garrantzitsua izan New York beharrean Donostia zelako. Hala ere ez dut uste sariak New Yorkeko merkatuari begira eragin handia izango duenik.

Donostian Urrezko Maskorra irabazteak ez zuen beraz eraginik izan?

Sari hori irabazita estreinatu ere ez diren pelikulak egon dira. Sariari esker guk estreinatu ahal izan genuen. Gainera ez genuen filmearen promozioa egiteko dirurik eta sariak publizitatea eman zigun.

Zineak dirua ematen al du?

Teknikoak dira zinean dirua irabazten duten bakarrak. Hoiiek urtean sei, zortzi edo hamar pelikula egiten dituzte. Zuzendariok urtean filme bat egiten



dugu gehienez, beraz diru asko irabazi arren ez du askotarako ematen. Nire kasuan ni produktorea naiz, hau da, dirua jarri eta soldatarik ez dut jasotzen.

HIESaren aurka Araban zehar egiten ari den kanpaina parte hartu duzu. Artistek gizarteko arazoekin kontzientziatuak egotea garrantzitsua iruditzen zaizu?

Artistek bere ideien arabera jokatu behar dute kaleko jendeak bezala. Dena den horrelako kanpaina batetan pertsona ezagun batek laguntzeak jendea parte hartzera bultzatzea badezake ondo dago. Dena den, zerbait errealagoa egitea gustatuko litzaidake, dirua ematea edo. Noizbait dirua irabazten badut zerbait gehiago egingo dudala uste dut.

**zure euskal
LIBURUDENDA**
Plaza Berria, 14
Virgen Blanca, 1
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ
errikoia



MOBILIARIO kide
apaindura

Cercas Bajas, 27 - Tfnoa.: 14 41 95 - 01008 GASTEIZ



Juanma Bajo Ulloa

Gasteizen jaio zen 1967.eko Urtarrilaren 1an.

1984. urtean GASTEIZKO ZINEMA ekoiztetxea sortu zuen. Lau erdimetrai egin ditu, Estatu mailako jaialdietan 20 bat sari jaso duelarik.

«AKIXO» mediometraia (16 mm) egin zuen, Bilbon, Valencia, Elche eta Alcalá de Henaren sariak jaso zituelarik.

Beranduago, «EL REINO DE VICTOR» mediometraia burutu zuen, Bilbon 5 sari, estatuko laburmetraiari ematen zaion Goya saria (89) eta Valencia, Elche eta Alcalá de Henaresen lehen sariak lortuz.

Duela bi urte «ALAS DE MARIPOSA» luzemetraia burutu zuen, bertan bera gidoi-egile, ekoizle eta zuzendaria izan zelarik. Luzemetraia honek honako sari hauek jaso zituen:

Urrezko maskorra Donostiako jaialdian (1991)

Zine-idazleen zirkuloak zuzendari berri onenari eta aktorea nagusi onenari (Silvia Munt) emandako sariak (1991)

1992.eko Goya sariketan, Zuzendari berri onenari, Aktore sai onenari eta Gidoi onenari emandako sariak.

Seattle International Film Festival-ean (1992) zuzendari berri onenari emandakoa eta 1991eko zuzendari berri onenari ematen zaion *Icaro* saria.

Hona hemen bere beste lanen berri:

«CRUZA LA PUERTA» (1984) : 23'

«EL ULTIMO PAYASO» (1985) : 34'

«A KIEN PUEDA INTERESAR» (1986) 7'

«100 AVIONES DE PAPEL» (1987) 30'

«CALOR» (1988) 7'

«AKIXO» (1988) Iraupen: 38'

«EL REINO DE VICTOR» (1989) : 37'

Matrikulaldi berria

Gasteizko Euskaltegietan

Euskara ikasi edo hobeto nahi duenak badu non aukeratu

Batzuk lehenago, beste batzuk beranduago baina, azken batean, Gasteizko euskaltegi guztiak ekin diote urteroko otsaileko matrikulaldi berriari. Bestalde, ikasturte honen hasieran, Urrian, hain zuzen, azken urteotan bezala, euskaltegietako matrikula kopuruak gorakadanabarmena izan zuela iragarri zuen hainbat komunikabidek. Bai ote? Guk Gasteizko euskaltegi guztietako arduradunengana jo dugu guzti horren gaineko xehetasun gehiago jakin nahirik.



NON MATRIKULATU?

HABE euskaltegia

Elvira Zulueta, 4.
Tfnoa: 23 09 44

UDABERRIA

Abendaño-Udaberria:
Abendaño, 48
Tfnoak: 22 34 33• 22 63 12
Udaberria:
Uruguay, 9.
Tfnoa: 24 49 65

AEK:

Aixkiria euskaltegia
Jose Mardones, 8.
Tfnoa: 26 35 40
Amaiur euskaltegia
Peru, 8
Tfnoa: 22 60 50


IKA:

Pinto-Artz euskaltegia.
Pintoreria, 74
Tfnoa: 28 97 80
Zaldianan euskaltegia
Zaldianan plaza, 16
Tfnoa: 24 49 05
Gasteiz-Adur euskaltegia.
Errege katolikoak, 15
Tfnoa: 28 89 22


HEGOALDE euskaltegia
Florida kalea 58
Tfnoa: 28 41 96

MATRIKULAZIOAREN BILAKAERA

URTEZ URTE



1990-1991
1991-1992
1992-1993
1993-1994



GALDERAK

1- Une honetan zenbat ikasle dituzue eta zenbat izatea espero duzue Otsailetik aurrera?

2-Azken urteotan matrikuletan gorakada somatu da Gasteizen. Zergaitik?

3- Zeintzu dira egun aurrera egiteko dituzuen arazoak?

4- Gasteozko euskalduntze prozesuari dagokionez, zein da zurea bezalako euskaltegietatik sortutako euskaldunberriek izan beharko luketen papera?

5- Nola ikusten duzu euskalduntze prozesua Gasteizen?



SABIN ARANA
Gasteizko HABEko arduraduna

1. Orain 389 ikasle ditugu gutxi gora behera eta otsailetik aurrera beste 8 ikastaldi hartuko ditugunez, 90 edo 95 bat ikasle gehiago izatea espero dugu.

2. Nagusiki bi arrazoi egon daitezke: batetik, euskara jakiteari, zenbait lanpostuetarako behintzat, gero eta garrantzi gehiago ematen zaiola eta bestetik, euskararen beharra eta kontzientzia, gazteen artean batez ere, zabalduz joan dela..

3. Euskaltegari dagokionez, hainbat arazo dugu, esaterako, kokapena, Gasteiz txikia izan arren gure euskaltea erdialdetik pittin bat urrun dagoela. Gainera, gure inguruan auzo handirik ez izateak ikasle gutxiago gertura dakigun ondorioa ekarri digu. Bestalde, azken urteotan euskaltegi berri batzu zabaldu dira Gasteizko erdialdean. Horrek ere eragina izan du gudan. Beraz, bi dira gure trabarik nagusienak: Euskaltegiaren kokapena eta azken urteotako euskaltegien ugalketa hori.

4. Argi dago, lehenengo eta behin, euskaraz hitz egin beharko luketela. Horretaz gainera, euskararen aldeko kontzientzia zabaldu beharko lukete beren inguruetan. Hori da, batez ere, euskaltegietan ateratzen diren ikasleei eskatuko niekeena.

5. Nik uste dut ondo doala. Gero eta jende gehiago ari da euskara ikasten bai helduak bai haurrak ikastola eta eskoletan. Baina, hori ez da kalean isladatzen, batetik, euskaldunok ez dugulako elkar ezagutzen eta bestetik, gune euskaldunik ez dagoelako. Orduan, euskaldunberri horiek ez dute aurkitzen norekin hitz egin euskaltegietatik atera eta gero. Beraz, nire ustez, nahiz eta euskalduntze prozesua ondo joan, oztopo hori guztion artean gainditu behar dugu.



MARIA JESUS ARANGUREN
Udaberriko arduraduna

1. Gaur egun helduen Euskaltegian dauden matrikulak hirurehun eta larogeitabat dira. Horietaz aparte, talde batzuk ditugu IVAPen eta Udaletxean, sei eta bi, hurrenez hurren. Azkenik, beste euskaltegian umeak ditugu, berrehun eta berrogeitahamasei, hain zuzen ere. Orotara, zazpirehun eta hamaika ikasle dira egun ditugunak. Orain, otsailan, matrikula zabaltzen dugu berriro ere urrian hasterik izan ez zutenei ikasteari ekiteko aukera ematearren. Beraz, garai honetan ez dugu zabalkunde handirik egiten eta bai, ordea, irailean eta ekainean.

2. Egia esanda, ez dugu gorakada horren zergatia aztertu. Hala ere, nik uste dut gorakada hori Gasteizen ez ezik, Bizkaian eta Gipuzkoan ere gertatu dela. Auzi honetan jendearen motibazioak tartean egon behar du, dudarik gabe.

3. Une honetan ez dugu arazo larririk. Bide horretan jarraitzeko asmotan gaude.

4. Ikasi dutena erabili behar dute, bestela, ahaztu egingo zaie. Azken urteotan ikusten ari gara hori gertatzen ari dela, gero eta jende gehiagok euskaraz hitz egiten du eta.

5. Nahiko motel doa euskalduntze prozesua Gasteizen, baina aurrera doa. Alegia, ez da egun batetik bestera izugarritzko aldea ikusten baina, esaterako, auzo hau, San Martin, nahiko euskalduna da gaur egun. Jende euskaldun asko bizi da hemen. Euskaraz egiten da dendetan, kutxa batetan, kalean ere entzuten da dexente. Tabernetan eta ez dago hainbesteko eraginik baina tira.



ANA MUGERTZA
AEKko Arduraduna

1. Gaurregun Gasteizen bakarrik, 730 ikasle ditugu bi euskaltegiak, gurasoen taldeak eta IVAPekoak kontutan hartuz.

Ikasle kopuruari dagokionez, otsailetik aurrera, berdintsu mantentzea espero dugu. Otsailean ez da gorabehera handirik egoten normalean.

2. Gorakada somatu da gorakada gertatu delako, hain zuzen ere. Ez dakit. Beharbada, Gasteizko jendeak euskara ikasteko sentimendu hori bereganatu du, orain euskara eta ikastea hurbilago ikusten baititu. Bestalde, agian, azken urteotan euskarari egin zaizkion eraso ikaragarriak izan dezakete zerikusirik guzti horrekin. Dena den, ezin dizut arrazoi zehatzik eman.

3. Ekonomikoak dira gehienbat. Jakina, arazo ekonomikoak arazo politikoak dira azken batean, ekonomia beti politikarekin batera jonen delako. Horretaz gainera, leku falta izaten dugu askotan gelak berehala betetzen dira eta. Horri aurre egiteko euskaltegietatik kanpoko gelak hartu behar izan ditugu.

4. Funtsean, beraien lana hizkuntzaren zabalkundearen legoke. Alegia, euskara kalean erabili eta besteengan eragin beharko lukete heuren ere ikas dezaten animatuz.

5. Nik uste dut, erreala izanda, lan asko egiten ari bagara ere, euskaltegien artean badagoela holako kakanahaste bat. Bakoitzak dauka bere irakaskuntza modua. Bakoitza bere munduan bizi da zentzu guztietan. Nor bere kabuz ibiltze hori ere normala izango da. Nire ustez, euskararen irakaskuntzaren munduan gabiltzanok elkarri lagundu beharko genioke gure artean nolabaiteko koordinazioa sortuz. Koordinazio hau era askotakoa izan daiteke.



BEGOÑA ARRIETA
IKAKo arduraduna

1. Egun, 1516 ikasle indugu dauzkagu orotara eta honela daude banaturik: Errege Katoliko kalean, Zaldiaran plazan eta Pintoreria kalean ditugun euskaltegiatan 1.150 ikasle, 11-15 urte bitarteko 100 bat gaztetxo eta horiek ez ezik, talde berezi batzuk ere baditugu, hots Vital Kutxako 9 talde, IVAPen 8, Udalak gurasoentzako antolaturiko 9 talde eta IRALEko bat.

Otsailetik aurrera ez dut uste igoera handirik gertatuko denik. Bestalde, kontutan hartzekoa da guk dugun ahalmena, gure euskaltegiek eta irakasleak beren mugak dituztelako.

2. Nik uste dut, hemen ere, euskara gero eta gizarteratuago dagoela. Horren ondorioz, jendeak behar handiagoa sentitzen du lanbide zein gizarte mailan.

3. Nagusia, dudarik gabe, dirua da, HABEk ematen dituen dirulaguntza eskasak, alegia. Bestalde, lekua eta irakaslearen prestakuntza ere, aintzat hartzeko beste arazo batzuk dira.

4. Dudarik gabe, hemendik ateratzen diren ikasleak euskara erabili beharko lukete, euskara kalean erabiltzeko zerbait delako. Hori argi izango balute, gauzak dexente hobetuko lirake. Horretaz aparte, hemendik ere bultzatzen ditugu gure ikasleak Gizarte Etxetan edota BAGAREn antolatzen diren euskarazko ekitaldietan parte har dezaten.

5. Hori da galdera polita, halajaina! Nik ikusten dudana oztoporik nagusia hauxe da: jendea goi urratsetara iritsiz gero, oso «zintzilik» geratzen dela, euskaltegietatik kanpo euskaraz aritzeko aukerarik izaten ez duelako. Horrela, ikasitakoa apurka ahaztu egiten zaie. Hori arazo larria da, nire ustez.



MARI JOSE ELORZA
Hegoaldeko arduraduna

1. Gaur egun 531 ikasle ditugu baina kontutan hartu behar da ikasturtea oraindik ez dela amaitu.

Ezin dizut esan zenbat ikasle espero dugun. Guk, matrikulazioa zabaldu eta dauzkagun taldeetan jendea sartu egiten dugu, besterik ez. Guretzat, beraz, oraingoa matrikulazio berri bat da noski, baina gehien bat taldeak osatzeari begira. Hau ez da, beraz, urrian hasiko dugun ikastaro bat bezalakoa. Baina, jakina, oraingoa ere ohizko propaganda bideak erabiliko ditugu, hala nola, eskupaperak, txartelak, irratia, egunkariak. Horretaz landa, ikastaro trinko bat hasi dugu jada urtarrilan eta beste bat hasiko dugu apirilari.

2. Nik uste dut jendea kontzientzia hartzen ari dela. Bestalde, jendeak, bere inguruaren eraginez, beharra ere sentitzen du. Esaterako, hainbat lanpostutarako hizkuntza eskakizunak ezarrita daudenez, funtzionario asko eta asko ari da euskara ikasten, besteak beste, Jaurlearitza eta Udaletxeak. Horrek ez ezik, giroak ere badu zerikusirik matrikulazio gorakada horrekin, nire iritziz.

3. Ez dugu arazo aipagarriarik. Dirulaguntzak atzeratu egin dira baina ez dut pentsatu ere egin nahi hori aurrera aģiteko arazoa bat izan daitekeenik.

4. Lehen eta behin, ikasi duten euskara hori kalean eta ahal dituzten leku guztietan erabili behar lukete.

5. Euskalduntze prozesua ondo doa, nire ustez. Urte batzuetatik hona jauzi dexente handia somatu da Gasteizen jende gehiagok ikasten baitu euskara. Gainera, lehen adierazi bezala, jendeak hizkuntzarekiko kontzientzia handiagoa hartu du azken bolada honetan. Beraz, egoera hobetzen ari da.

OTSAILAK 25

**ARABAKO
TOPONIMIAZ**

Jon Zabala

Goizeko 12etan eta
arratsaldeko 7etan
Judizmendi Gizarte-etxean.

Laguntzaileak:


G.E.L., IKA, AEK, BAGARE,
MAGESTERITZA ESKOLA,
HABE, IRALE, HEGOALDE,
UDABERRIA, BERTSO
ESKOLA,
KOLDO
MITXLENA,
GASTEIZKO
UDALA eta
E.H.E.



I K U S I



1




2




4


- 1.- Inñurrategi anaiek Luis de Ajuria aretoa bete zuten. Argazkian bietako batek Mendira begira.
- 2.- I. Arte erakusketa, HIES-aren aurkako borrokaren alde.
- 3.- «Bost egunetan erretzeari utzi» lemapean 500etik gora gasteiztarrek parte hartu zuten.
- 4.- Kordon Etxean, ikusi daiteke, oraindik ere, «Natura misteriotsua»



Egurrezko jostailuak



Didaktika - materiala




Opiniak



Benito Ginea, 2
Tfnoa: 25-75-14
GASTEIZ

TAKOAK



Euskara gure kulturaren oinarria da.
Horrexegatik egunez egun aurrera
goaz euskara arabar guztion
hizkuntza izan dadin.



DIPUTACION
FORAL DE ALAVA

ARABAKO
FORU ALDUNDIA

DPTO. DE PRESIDENCIA

LEHENDAKARITZA SAILA

SAN ANTON ZOZKETA

Zurbanoko txerri baten istorioak

San Anton Zozketa, pasa den hilabetean ospatu zen Gasteizen. Oraingo honetan ehun mila txartel jarri ziren salgai, horietatik 60.000 saldu zirelarik. Ohiturari jarraiki, San Prudentzio egoitzako bi edadetu izan ziren sariak banatu zituztenak.



Dolores Martin Carnero (89 urte) eta Severiano Saez de Jauregi (85 urte)

San Anton Zozketa, duela bi mende inguru sortu zen. Orduz geroztik Gasteizen egiten den ospakizun herrikoien artean leku berezia hartu du. Izan ere, gorabehera asko ezagutzu ditu, baita zenbait agintarik beren helburu politikoetarako aprobetxatu nahia ere.

Nekazariak, garai hartan, Urtarrilaren 17an San Antonio Abad Kofradiak ospatzen zuen mezara joaten ziren San

Pedro elizara, bertan txerrikiak eta abereak bedeinka zituzten. Hor dugu zozketa honen sorrera.

Gasteizko Hospizioa

1781. urteaz geroztik, Gasteizko Hospizioa sortu ondoren, entitate honi

ematen zioten Kofradiak egiten zuen zozketa baten etekina.

Honez gain, data horietan, txerri-azoka ospatzen zen Gasteizen. Guzti honengatik egun hura jaia handia zen hirian.

URTEZ URTE

- 1781** San Antonio Abad kofradiak egiten zuen zozketa Gasteizko Hospizioaren alde egiten da lehenbiziko aldiz.
- 1887** Madrilgo Hazienda eta Gasteizko udalaren arteko gatazka. Zozketa egun bat beranduago ospatzen da.
- 1895** Urte batzuk pasa ondoren eta baliabide falta dela eta, Hospizioko Juntak Madrilgo asmoak onartu behar ditu eta Loteria Nazionalarekin bat egingo da zozketa. Honek gainbehera egiten du.
- 1920** Herminio Madinabeitia, hiriko alkateak, 1921.ean zozketa era tradizionalan egin dadin saiatzen da. Alferrik.
- 1937** Zozketa igandean zenez eta guda zibila garaian, tradizioa berreskuratzen da. Ospakizun ugari.
- 1946** «Josetxu» izeneko gasteiztar bat -Cachan kalean bizi zena- boletoak kalez kale saltzen hasten da. Berehala, bere «txaskarrikoak» direla eta, ospetsu bihurtuko da. Gasteiztar honek salmenta hau egingo du harik eta 1988an Aniceto Olazagoitiak bere lekua hartu arte.
- 1984** Boletoetan zozketa Hospizioaren alde dela esaten bada ere, onuraduna San Prudentzio zahar-egoitza izango da. Aurrerantzean honela izango da.

AURTENGO SARIAK:

- 1. saria
Txerria edo 50.000 pzta:
14.886 zka.
- 2. saria
Kubarako bidaia:
53.926 zka
- 3. saria
Marokorako bidaia:
67.997 zka
- 4. saria
Ordenagailu bat:
24.536 zka
- 5. saria
Bideo Kamara:
58.011 zka

1887.eko Zozketan Madrilgo Hazienda eta Gasteizko Udalaren arteko arazoak egon ziren. Azken honek, baldin eta zozketa betiko moduan egiten ez bazen (Madrilek Loteria Nazionalarekin batera egitea eskatzen zuen) dimisioa aurkezteko mehatxua egin zuen. Negoziazio zailen ondoren, egun bat beranduago burutu zen urte hartako zozketa.

Hospizioko Juntak («de Diputacion a Pobres» zeritzona) Madrilgo asmoen aurrean, Udalaren eskuhartzea eskatu zuen 1879.eko zozketan. Honek aurreko urteko alegazioek jaso zuten ezezkoa ikusita, ez zuen tramite horietan parte hartu nahi izan, halere, zozketa aurrera ateratzea begi onez ikusiko zuela adierazi zuen.

Loteriarekin batera

1985. urtean, Hospizioak baliabideak behar zituela eta, Juntak baiezkota eman zion Estatuko Haziendari eta beraz zozketa Loteria Nazionalarekin batera ospatu zen. Honengatik, jaiaren egunean bertan ez ospatzeagatik, San Anton

zozketak gainbehera egin zuen.

1920. urtean eta Herminio Medinabeitia alkatea zelarik, herriaren nahia jaso nahi izan zen eta Madrilgo administrazioari eskatu zitzaion zozketa era tradizionalan egiteko baimena. Tramitea alferrikakoa izan zen.

Gerra zibilaren garaian

Urte batzuk beranduago, 1937. urtean - guda zibilaren garaian- aintzinako eran egingo da zozketa. Eguna igandea zenez, aprobetxatu zen ekitaldi asko ospatzeko, goizeko 9tik zozketa-ordurarte. Alkateak, Rafael Santaolallak, ere egoera aprobetxatu nahi izan zuen. Izan ere, Zozketaren ekitaldian irakurri zuen diskurtsoan, aintzinako tradizioak berrezartzen zuen erregimen frankista berria goraiatu zuen...

Beraz, gorabeherak gorabehera, gure egunetara heldu da zozketa hau. Duela bederatzi bat urte, 1984.ean, Hospizioa desagertu zen, horrez geroztik zozketatik ateratzen den dirua San Pudentzio zahar-egoitzari ematen

zaiolarik.

Abere-azoka, Udal banda, Udalbatzarraren desfilea,... gauza guzti hauek desagertu dira. Txistulariak, Erraldoi eta Buru Handien konpartsa eta bestelako ekitaldi folklorikoren bat geratu dira. Dena den, ofiziala egiten bada ere, «soconusco» herritarren falta nabaritzen da: «azucarillo volao», manteka-torta, eta «bizcochos de espuma».

Herriaren ospakizuna

Atzera begiratzen badugu, garbi ikus dezakegu San Anton zozketa bere ohiturekin bat egiten duen herriaren nahiari esker mantendu dela, nahiz eta 1987.ean baten batek gasteiztarron sentimenduak bere alde aprobetxatu nahi izan zituen. Hala ere, urte hartako garaipena ez zen alkate horrena, 50 urtez hain ospakizun herrikoia aldarrikatu zuten hiritarrena baizik.

JOSE MARI BASTIDA. Txapi.

- Goi urratsak
- Negu barnetegia (Lesakan)
- Ikastaro bereziak: EGA, Alfabetatzen eta Sakontzen

Matrikula epea: Urtarrilaren 18tik Otsailaren 12ra



EUSKARAZ

INFORMAZIOA ETA MATRIKULA

GASTEIZ eskalategia:

Errege Katolikoak, 15-C • Tfnoa: 28 89 22

PINTO eskalategia:

Pintoreria, 74 • Tfnoa: 28 97 80

ZALDIARAN eskalategia:

Zaldiaran Plaza, 16 • Tfnoa: 24 49 05


JANTZIAGO EUSKALDUNAGO

hAurRAk

ANIMALIAK ETXEAN, BAI ALA EZ?

Gaur etxeko animalietaz hitzegingo dugu. Batzuk esaten dute animaliak ezin direla etxean eduki, baina animaliak pertsona modukoak dira eta sentimenduak dituzte.

Nire ustez katuak dira animali ulerkorrenak baina katu bat etxean edukitzearen alde txarrenak hauek dira: kortinekin kontuz ibiltzea, besaulkiak ez urratzea, zure jana ez jatea eta garrantzitsuena kaka non egiten duten ikustea.



Josu Olano

Txakurrak ere oso onak dira baina beti kalera atera behar dituzu, egunean lau aldiz gutxi gora behera.

Bueno, orain katuetaz hitzegingo dizuet. Katu arraza asko daude, adibidez katu Siamesa, katu hau azkar bildurtzen da eta horren ondorioa kortinetan igotzea da noski. Zuk katu lasai bat nahi baduzu hoberena katu Tabby bat izatea da, zeren katu hau munduan dagoen animalia lasaiena bait da. Adibidez, erasketak egitera zoaz eta katua ohe gainean uzten duzu, bi ordu pasa eta gero katua oraindik ez da ohetik mugitu, bakarrik janaria uzten badiozu mugituko da noski, zeren katu hauek asetu arte jan bait dezakete, hiru hilabete dituztenean bost kilotara heldu daitezke.

Badaude beste katu batzuk ezin dituzunak

harrapatu inoiz, hori esaten dute behintzat, adibidez: Birmanoa, Txintxilla, Angorakoa, Noruegako basoetakoa eta askoz gehiago. Katu bat zure etxean pozik egoteko berarentzako jokuak izan behar dituzu: kubo bat harriz bete bere egin-beharrak egiteko, kutxa bat kojinekin barruan lo egiteko eta bere janaria edukitzeko leku bat. Katuei garbitasuna gus-tatzen zaie eta horregatik garbitzen dira denbora guztian. Urtean lau aldiz

eraman behar duzu zure katua al baitariarengana, hau da, hiru hilabetero.

Ikusi duzunez, katuak oso onak dira baina batzutan...

Naiara Ormazabal.

Guri kontatzeko zerbait duzula?
Zure ipuin bat? Idazlana? Poesi bat?
Komiki politak daukazula kajoian?
BIDALI GEU GASTEIZera eta aldizkarian
aterako ditugul

GEU GASTEIZ
1691 postakutxa. Gasteiz

KIKIKATZEN
KALE ANIMAZIOA



Burua Hausten

Izugarria zen Josune: parte hartzen zuen karrera guztietan, atzeraka egiten zuen eta halere, irabazi egiten zuen askotan. Nola egingo ote zuen?

(artauketan egiten zuen)

.....
Esaldi hauetan hiru errore daude:

- Gasteizko jaiak abuztuan dira.
- Alavesak Mendizorroztan jokutzen du.
- Taugres-Baskoniako jokalariek pilotariak dira.
- Foru Aldundia Gasteizen dago.
- Gasteizek lorategi asko ditu.

(daudela")

(bi dira erroreak, bata Taugres-Baskoniako jokalariek pilotariak direla, eta bestea "esaldi hauetan hiru errore

.....
Ondorengo zenbaki hauetako bat soberan dago. Ba al dakizu zein den, eta zergatik?

2968.....18462395.....9024.....1900.....0134

(2395, gainerako guztiak zenbaki pareak dira eta hau ez)

Hau da hau desastrea! Goizeko bostetan jaiki zara mendira joateko, dena prest utzi duzu bezperan, baina galtzerdiak hartzea ahaztu egin zaizu. Logelara itzuli eta argia piztu gabe hartu behar dituzu, zure anaiarekin istilurik ez baduzu nahi. Kaxoia ireki eta bertan sei galtzerdi zuri eta sei urdin dauzkazu. Ilunetan ez duzu ezer ikusten. Zenbat galtzerdi hartu beharko dituzu kolore bateko pare osatzeko?

(hiru)

.....
Nola jarri beharko dituzu 1etik 9ra doazen zenbakiak, beraien gehiketak ondorio hau emateko.

			10
			13
			22
13	15	17	

6-5-8

4-7-2

1-3-6

Soluzioa:

den-dan
h a l t z a r i a k

Gerardo Armesto, 2 • Tfnoa: 24 38 49
01008 GASTEIZ

HADE EUSKALTEGIA

- Otsailetik aurrera ikastaro berriak.
- Maila guztiak

Evira Zulueta, 4 (Prado parkearen ondoan) • Tfnoa:23 09 44 GASTEIZ

XIRRIXTA

4 URTETATIK GORAKOENTZAKO ALDIZKARI BERRIA

Beharbada ezaguna izango zaizu Xirrixta aldizkari hau, baina euskaraz ateratzen den hilabetekari honi buruzko datu batzu emango dizkizugu bi hitzetan.

Xirrixta aldizkaria Euskal Kultur Erakundeak eta Milan argitaletxeak argitaratzen dute. Apirillean kaleratu zuten beren 0 zenbakia, eta Urritik aurrera hilero ateratzen da.

Hilabetekari hau 4 urtetatik aurrerakoentzat pentsatuta dago eta ernatzeko jokoak, eskulanak, sukalde txokoa, irakurtzeko irudiak, ipuin, komiki, erreportaiak, eta abarrez osaturik dago.

Euskara aldetik iparraldeko eta hegoaldeko euskararen diferentziak txikitzen saiatzen dira, eta horretarako dago Idazlan batzordea, bertan Gasteizen bizi den Miel-Anjel Elustondo dago, besteak beste.

Aldizkari honek laguntzaile talde zabala du bere inguruan, eta lehendik ere honelako lanetan aritua den Milan argitaletxearen laguntza osoa du.

Gasteizen Herrikoia liburudendan daukazue salgai (350 ptza), eta urteko harpidetzak 4000 ptza dira.

Norbaitek aldizkari honi buruzko informazio gehiago nahi baldin badu, helbide honetara jo dezake:

Euskal Kultur Erakundea

LOTA - B. P. 27

64480 UZTARITZE

Iparralde

Tfnoa: (07 33) 59932525

Faxa: (07 33) 59930684



ditare

MIHISEDENDA

**UME ETA EMAKUMEENTZAKO
LENTZERIA ETA BARRUKO ARROPAK**

Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ

VDABERRIA

elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat
- Ume eta gaztetxoentzat
- Musika eskola
- Dantza

Uruguay, 9 • 01012
Tfnoa: 24 49 65

GASTEIZ

KIROLAK



Martin Fiz



GORETTI
ILEAPAINDEGIA

San Antonio, 29-Behea
Tfno: 13 18 55
01005 - GASTEIZ

Cervecería
Alemana

SALTXITXAK
KAZOLATXOAK
SANDWICHAK

Gerardo Armesto, 3 • (Gasteiz etorbidearen ondoan) Tfnoa: 13 29 88 • GASTEIZ

Martin Fiz: «Marino Lejarretak utzitako lekua betetzea gustatuko litzaidake»

Gasteiztarrok geure herkide bat afrikarrez inguraturik ikusten ohitu gara. Itxuraz, gizon txikia eta makala da, baina munduko kros izar nagusiek badute bere indarraren berririk. Noski, Martin Fiz korrikalariak ari gara hitz egiten.



Hamahiru urte zituenetik Martin Fizek ez dio korrika egiteari utzi. Gazte-gaztedanik ikasteko balio ez zuela ohartu zen, "Jesus Langile" ikastetxean egiten zituen ikasketak baztertu eta jo ta ke entrenatzeari ekin zion. Ordundik hona, Martin arrakastaz arrakasta ibili da, horra hor berak irabazitako txapel guztiak. Halere, kirol honek sakrifizio handia eskatzen du eta lau edo hiru urteren buruan erretiratuko dela iragarri digu, "krosa oso gogorra da eta bizitzaz gozatu nahi dut, honela ere zoriontsua naiz, baina Gasteiz eta guztiz ahaztu zaizkidan lekuak ezagutu nahi ditut».

Zalegoaren txaloak

Ez dugu pentsatu behar, halabaina, gasteiztarra beherako bidean dagoenik, ezta gutxiago ere. Bere buruan helburu berriak ditu eta bata bestearen atzetik, ia arnasik hartu gabe, luzatzen dizkigu, «otsaila eta martxoan lehiaketarik garrantzitsuenak dira, Lasarte, Euskadi eta Espainiako txapelketak, eta bukatzeko Munduko kros txapelketa Zornotzan». Hain zuzen ere azken hau da bere jomuga nagusia, euskal zalegoaren begiak berarengana zuzenduko direla badaki, eta ez du huts egin nahi, «munduko txapelketa etxean izango da eta nire zalegoaren aurrean postu ona egin nahi dut. Nire ametsa, korrikalari zurien artean lehena izatea».

Urtero Lasarteko hipodromoan elkartzen diren 15.000 lagunak ikustea harrigarria da, goizeko kolore nagusia beltza,

**OPARIAK • KERAMIKA
ARTISAUTZA**

AVDA GASTEIZ, 7 • Tfnoa: 14 19 27

“UPELA” MOTRI

SAGARDOTEGIA • ZALDITOKIA

Tfnoa: 908-67 31 08 ALAIZA (Araba)

**ONAINDIA
garraioak**

Denerako prest
Tfnoa: 908 - 67 34 77 • ARABA

keniarrak, marokkoarrak, etio-
piarrak..., erdian gure gizona dugu,
beti bezala borroka bizian. Jendeak
kirolariei txaloak egiten dizkie,
baina guztion bihotzean izen bat,
Martin Fiz alegia. Berak baieztatu
digunez euskal zalegoarengandik
jaso duen maitasunak hunkitu du,
«une horietan sentitzen duzuna
azaltzeko, ez dago hitzik. Alde
honetatik, Marino Lejarretak Euskal
Herrian utzi duen lekua betetzea
gustatuko litzaidake. Hauxe da
saririk onena».

Beti gailurrean

Guztiok Martin Fiz podiumean
ikustera ohitu gara, gure gogoetan
grabatutako irudia berehala labur
daiteke: afrikar bat, beste bat, eta
Martin Fiz noski. Honen inguruan
Martinek anekdota bat aditzera eman
digu, «aurten Elgoibarren laugarrena
egin dut, ni, nire entrenatzailea eta
gurasoak pozik geunden. Hala ere,
froga bukatu bezain laster hainbat

zale ni animatzera etorri ziren, lasai
egoteko esanez». Gogoratu behar
dugu Euskal Herrian munduko
korrikalaririk onenak ikusteko
aukera izaten dugula, Fizen esanetan
«hau krosaren sehaska baita».

Gailurrean irautea ez da
txantxetako lana, gure gaurko
elkarrizketatuak, esaterako, zazpi
orduz entrenatu behar izaten du
egunero. Hala eta guztiz ere,
«gustora egiten dut, bizitzak dituen
gauzarik onenak alde batera utzi
behar baditut ere, gehien gustatzen
zaidana egiten dut», adierazi digu.
Amaitzeko Gasteiz hiriarri buruzko
iritzi bat eskatu diogu, hona hemen
bere erantzuna, «kirolari bezala ez
dut inolako kexarik, parke eta kirol
instalazio ugari dago eta.. Hori bai,
semaforoak ere asko dira», argi dugu
ordea, ez dagoela Martin Fizen
indarra geldid dezakeen semafororik..

BITXIKERIAK



- Zaramaga auzoan jaio zen orain 30 urte.
- Ahal izan duenean, blusaz jantzita irten da Gasteizko jaietan.
- Hamairu urte zituela hasi zen atletismoan
- Bere bizitzan jasandako unerik latzena Acenorren krisia da.
- Zapa kalean taberna bat eta Gasteizko hiribidean kirol dena bat ditu.
- «Martin Fiz» laguntaldeak Euskal Herriko kros guztietan laguntzen dio
- Arratsaldero, Arriaga parkean entrenatzen du.



Muluma
MASAIA - QUIROMASAIA
Kote Zubizarreta

Olagibel, 20 • Telefonoa 25 92 06

LIBURUDENDA ESPEZIALIZATUA
KARTOGRAFIA, BIDAIK
ETA MENDI GAJETANA

MUGA

Adriano VI, 4
 Tfnoa: 14 63 25
GASTEIZ

Navarrería, 20
 Tfnoa: 22 25 29
IRUÑEA-

6

MAGIA. Nazioarteko jaialdia.
Principal Antzokian 7,30etan.

7

MAGIA
Beñat Etxepare Antzokian goizeko
11etan
Foru Plazan, arratsaldeko 7etan

9

KONTZERTUA: Almudena Cano.
Pianoa
Araba Kultur Aretoan, 8etan.

10

KONTZERTUA: «Quinteto»
«Ensemble Hispano Americano»
Printzipal Antzokian, 8,30eta.

11

ANTZERKIA: «Logalea zeukan
ekilibristaren kasoa» (euskaraz)
Principal Antzokian, 8,30etan.

12

ABESBATZA: EGUZKI LORE
(Agurain)
Araba Kultur Aretoan, 8etan

13

KANTALDIA: XABIER LETE
Principal Antzokian, 8,30etan.

14

ANTZERKIA: Ume eta
gazteentzako antzerkia. Olabide
Ikastola. «Los dones de la
esperanza»
Principal Antzokian, arratsaldeko
6,30etan.

16

INAUTERIETAKO PREGOIA.
Villasuso Jauregian, arratsaldeko
8etan.
KONTZERTUA: «Jesus Guridi»
eskolako irakasle/ikasleak.
Araba Kultur Aretoan, 8etan.

19

KONTZERTUA: «Via Nova, cuarteto
de cuerda»
Principal Antzokian, 8etan.
KONTZERTUA: Gasteizko Ume
Kantariak
Araba Kultur Aretoan, 8etan.
DANTZA: Indarra Dantza Taldea.
«Mozorroen Dantza Jaia»

23

KONTZERTUA: «Pablo Sarasate»
musika-eskolako Saxofoi Kuartetoa.
(soprano, tenor eta baritonoa)
Araba Kultur Aretoan, 8etan.

25

TERTULIA: Villasusoko tertuliak
Villasuso Jauregian, arratsaldeko
8etan.
KONTZERTUA: Duo Versus. Flauta
eta Kitarra.
«Jesus Guridi» Musika eskolan,
8,15etan.
DANTZA: «Traspasos» taldea.
«Sisifo» lanaren estrenaldia.
Principal Antzokian, 8,30etan.
HITZALDIA: IVEF-ren eragina ekitaldi
federatuan. Foru Aldundiaren Kirol
Zerbitzuak antolatua.
Kultur etxean.

26

ABESBATZA: Laudioko Ume
Kantariak
Araba Kultur Aretoan, 8etan.
DANTZA: «Traspasos» taldea.
«Sisifo» lanaren estrenaldia.
Principal Antzokian, 8,30etan

27

KONTZERTUA: Yugoslabiako
gerraren aurka. «SOS Balkanes,
Araba»
Principal Antzokian, 8etan.

ALISAS

TABERNA

EZ DAGO
PINTXORIK

KUTXI • GASTEIZ



ZAPATEGIA - ARTISAUTZA



Herreria, 86 • GASTEIZ

ARABAKO
ESPERANTO
ELKARTEA



Zapateria, 29 • Tfnoa: 22 05 70

28

KONTZERTUA: Udal Banda eta Samaniego Eskolania.

Principal Antzokian, goizeko 12,30etan.

UMEENTZAKO ANTZERKIA: Petit Circ de Carrer. «Circus. Tancies» Principal Antzokian, arratsaldeko 6,30etan.



BESTELAKOAK

KULTUR ETXEAN:

Otsailaren 5, 8, 12, 15, 19, 22 eta 26an, Adinekoentzako ikasgelak. Thai-Chi.

Otsailaren 8, 10, 15, 17, 22 eta 24an, Adinekoentzako ikasgelak. Gorputz-espresioa.

Otsailaren 11 eta 24an: ORHUM. Unibertsitateko Zine-Klubaren zine-emanaldiak.

Otsailaren 20 eta 21an, Foru Aldundiaren Kirol zerbitzuak antolaturik, **HITZALDIAK:** «Kirol programaziorako sistemak».

Ur-biltegi zaharrean, otsailaren 16tik martxoaren 14a arte. IÑAKI LARRIMBE eta ESTEBAN TORRES. «androideek ardi elektrikoekin egiten dute amets»

NH Aretoan (Canciller Ayala Hotela) hilabete osoan zehar. Pintura.

Olagibel Aretoan (Enparantza Berria) 11tik 25a arte. MIKEL BENITO. Keramika.

Caruso Kafetegian (Enrike Eguren 9) otsailaren 6tik Martxoaren 4a arte. SONIA RUIZ de ARKAUTE. Oleo Pintura.

Kultur Etxean (Florida) 1tik 15a arte NUÑEZ. Pintura. 16tik 27a arte. ZUMALDE. Marrazkiak.

Cordon Etxean. 25a arte. «NATURA MISTERIOTSUA» erakusketa.

CM2-en (Araba Jauregia, Herreria 24) otsailaren 18tik martxoaren 6 arte. ALVAREZ PLAGARO eta PABLO MILICUA. Pintura-eskultura.

Artelarre galerian (San Francisco 18) Hilabete osoan zehar. Erakusketa kolektiboak.

Arte Rubens Galerian (Manuel Iradier 9-A). 15a arte. PEDRO BERISTAIN. Oleo pintura.

Trayecto Galerian (Ramiro de Maeztu 10). Martxoaren 6a arte) M. LUISA FERNANDEZ. Eskultura.

Amarika Aretoan, hilabete osoan zehar, Euskal aristen erakusketa. «EL RECREO». Pintura-Eskultura.

Araba Aretoan (Independentzia 3) 2tik 21a arte. Erakusketa kolektiboa. MAITE CARAZO, CELIA LUMBRERAS eta SUSANA ARRUA.

Erakustaretoan (San Prudentzio 22) hilabete osoan zehar. «Gasteiz, errusiarrek pintatuta» eta «Loreak, bodegoiak, paisaiak eta itsasoa»

Luis de Ajuria Aretoan (General Alava 7) 2tik 14a arte. «Araba, 150 prentsa-argazki» El Correo Español eta Vital Kutxak antolatua. 18tik 28a arte. ESTIBALITZ ORMAETXEA. Pintura.

San Prudentzio Aretoan (San Prudentzio 30) 21a arte. PILAR ALBAJAR eta ANTONIO ALTARRIBA. «Ametsak gela ilunean». Agazkiak.

URTEGI-ALDE

SAGARDOTEGIA

Urrunaga (Araba) Tfnoa: 45 50 67

GILTZA ARABA

ZERRAILDEGIA

LARRIUNETARAKO ZERBITZUAK 24 ORDUZ

zerrailak, giltzak, atek kotxeak...

Tfnoa: 945-26 57 29 Jose Mardones, 7 01004 GASTEIZ

Chimbo Jatetxea

Cuchilleria, 57 • Tfnoa: 27 28 91
GASTEIZ

Ihauteriak

OTSAILAK

16, Asteartea

8etan, Villasuson, IHAUTERIETAKO PREGOIA, Julia Larrinbe aktoresaren eskutik.

17, Asteazkena

8etan, Villasuson, umeentzako mozorro-lehiaketa. Magia ikuskizuna.

18, Osteguna

8etan, Villasuson, Fantasiatzko mozorro-lehiaketa, Julia Larrinbek aurkeztua.

19, Ostirala

8etan, Villasuson, aurreko egunetako lehiaketetan parte hartu dutenen desfilea. Sari-banaketa. Tunaren aktuazioa.

Gaueko 10,30etan, «Mozorroen Dantza Jaia», INDARRA Dantza taldearen eskutik.

20, Larunbata

Arratsaldeko 5,30etan, Karroza eta Konpartsen bilkura, Gasteizko hiribidean.

Arratsaldeko 7etan, Ihauterietako desfilea, hiriko kaleetan zehar.

Gaueko 11etan, Enparantza Berrian, BRASS orkestra. Musika emanaldia.

Gaueko 11etan, Ihauterietako berbena. Arka plazan, DRAKKAR taldearen eskutik.

21, Igandea

Goizeko 11,30etan, Karroza eta Konpartsen bilkura, Valladolid kalean.

Eguerdiko 12etan, Ihauterietako desfilea, hiriko kaleetan zehar.

Eguerdiko ordu 1ean, Enparantza Berrian, dantzaldia. ANAGRAMA orkestra.

Arratsaldeko 5etan, Iparralde polikiroldegian, umeentzako jai.

ZUENTZAT taldea.

Arratsaldeko 7,30etan, Enparantza Berrian, Dantzaldia. ANAGRAMA orkestra.

23, Asteartea

Arratsaldeko 7,30etan, Enparantza Berrian, Sardinaren lurperaketa eta Ihauterietako dantzaldia. KOXKOR taldea.



**JATETXEA
ERRETEGIA**

**OKELA ETA
ARRAIN
ERREAK**

Cantòn de San Fco. Javier, 4 • Tfnoa: 27 68 33 • 01001 GASTEIZ



LARRUKI
Larruaren
Artisautza

KANPOKO ARTISAUTZA, BITXIKERIAK

Kùtxillera, 26
Tfnoa: 28 38 86

01001-GASTEIZ

Oraingo honetan gure Sukaldeko Txokotik proposatzen dizuegun menua edozein asteburutan prestatzeko aproposa da. Egiteko zaila ez bada ere, sukaldaritza kontuak ez dira korrika eta presaka egitekoak. Espero dugu ondo pasatzea prestatzen eta hobeto jaten!

BARAZKI BUDIÑA

Osagaiak

- 8 arraultze
- Esnegaia: litro laurden bat
- Gatza
- Piperauts txuria
- Barazkia: azenarioa, porrua, lekak, ilarrak...
- Gurina
- Ogi birrindua

Baraki guztiak banan banan egosi behar dira. Egosita daudenean luzetara moztuko ditugu. Arraultzeak eta esnegaina nahasiko ditugu eta gainetik ogi birrindua bota. Lehen egindako nahasketa pixka bat moldean jarriko dugu, gainetik azenario xerratua ipiniko diogularik, beste krema pixka bat eta berriro beste barazki bat, horrela krema guztia bukatu arte, baina kontutan izan azken kapak krema izan behar duela.

Labea aurrez berotuta egongo da 180 gradutan eta maribainutan utziko dugu ordu eta laurdenez.

Oharra: maribainuko urak ez du irekin behar, bestela budinak zuloak izango ditu.

Edozein barazki erabil dezakezu baina aurrez egosita egon behar du.

SUKALDEKO TXOKOTIK

XERRAK "ROQUEFORT ERARA

Osagaiak

- Xerrak
- Gatza
- Olioia

Roquefort saltsarako:

- Esnegaina
- Roquefort gazta

Aurrena Roquefort saltsa egingo dugu. Horretarako esnegaina sueztitan berotuko dugu gaztarekin. Gazta pixkanaka pixkanaka urtu egingo da eta irakiten hasten denean bueltak emango dizkiogu goilara batekin ez atxekitzeko eta loditzeko.

Xerrak plantxan egingo ditugu, haragiari gatza azkenengo momenturarte ez diogula bota behar ahaztu gabe.

Oharak: Beste gazta mota bat erabiltzen bada gazta horren izena hartuko du. Adibidez: Idiazabal saltsa....

Saltsa lodiegia ateratzen bazaiaigu, gehi diezaiokegu esnegain pixkat edo esnea.

TXOKOLATEZKO MUSSA

Osagaiak

- 5 Arraultzeak
- 150 gr. Txokolatea (kobertura)
- Koinaka kopa erdia
- Ur goilarakada bat
- 30 gr. Gurina

Ontzi batean ura ipiniko dugu eta honen barruan beste ontzi bat, bertan jarriko dugu txokolatea biguntzen. Txokolatearekin batera ura eta koinaka. Bigun dagoenean, sutatik atera gurina gehitzeko eta ondo nahasteko. Nahasketa horri arraultze gorringoak bota, zuringoak elur puntura jaso behar dira. Gutxi falta denean azukre pixkat botako diogu gozotzeko. Dena txokolatearekin nahastu eta katilutan jarri, hozten denean nahi izanez gero hozkailura sar daiteke.



ARTEPAN

Artisau

Okindegia eta Goxotegia


Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

ANBOTO

TABERNA - JATETXEA
EGUNEKO MENUA

Kutxillera, 29 - Tfnoa. 25 00 93 - 01001 GASTEIZ

1992



EUSKADIKO LEHEN KOMUNIKAZIO- TALDEAK HAMAR URTE BETE DITU

Hamar urtetan ametsa egi bihurtu da.

1982. urte arte ilusio hutsa zen.

Gaur egun, lau irrati eta bi Telebista-kate dituela, Euskal Irrati-Telebista Euskadiko lehen Komunikazio-taldea da.

Atzo goizean bertan gertatu zela dirudi. Baina hamar urte joan dira herri honen historian.

Badugu oraindik zereginik asko.

Proiektu berriak. Ilusio berriak...



Caja Vital Kutxaren TeleCaja *plus* berria



Den-Dena Dauka Ba al daukazu zuk?

Bakarrik hitzegitea falta zaio.
Badauzka kredito txartelaren abantailak.
Badauka 6000 txartelaren erabilgarritasuna.
Badauka edozein ezustetarako aseguruarik.
Badauka aparteko diseinua....
eta Caja Vital Kutxaren babesna ere.
TELECAJA PLUS berria.
Den-dena dauka
Ba al daukazu zuk?

Argibide gehiago
900-440.440
doanezko telefonoan

KONTUTAN HARTZEKO ABANTAILAK



1. Behar duzun guztietan, kredito automatikoa eta berehalakoa eskuragai izatea.

5. Eskudirua nahiz kredituzkoa ateratzea estatuko 17.000 toki desberdinetan, eta aurki Europa osoan ere.



2. TeleCajak lagun dituen saltegi, jatetxe, tailerretan... ordaintzea.

6. Txartela lapurtu edo galduz gero, edonolako estualdi zein ustekabe alboratzea. Horretarako aski da 16 22 77 telefono zenbakira deitzea, bera indargabetzeko.



3. Ordainbidea beti aukeran izatea: eskura, hilabeteka, epeka...

7. Trenez, hegazkinez, itsasontziz... egindak joan-etorriak ordaintzea, eta istripu aseguru milioietakoa izatea.



4. Txartelaren bidez, erositakoan lapurretarako 3 hilabeteko aseguru berezia.

8. Zure saldoa ikusi, estraktoak eta taloitegiak eskatu eta zure gastuen kontrola eramatea.

Caja Vital  Vital Kutxa

Gasteiz eta Arabako Kutxa

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa